



2008KO APIRILAREN 9KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko apirilaren zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi.

Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrenda egiterakoan, hutsegitez, San Prudentzio jaien egitaraua puntua ez zela sartu baina presazko izaera prozedura jarraituz Tokiko Gobernu Batzar honetan sartzea eskatzen duela. Denak ontzat ematen dute proposamena.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko martxoaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HIRUROGEITA HAMA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI euro eta HIRUROGEITA HAMA ZAZPI zentimo (77.792,77,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 385 zbk.dun esped.: 2008ko martxoaren 15ean egoitzan sartu dela eta, etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea.

- 611 zbk.dun esped.: 2008ko martxoaren 25ean egoitzan sartu dela eta, etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea.

- 796 zbk.dun esped.: bere senarraren heriotza dela eta, etxeko laguntza zerbitzua murriztea, astean 6 egun eta egunean 3 ordutik astean 6 egun eta egunean 2 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren % 15 da.

...///...

...///...

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 385 zbk.dun esped.: 2008ko martxoaren 15ean egoitzan sartu dela eta, etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako ematen zitzaion laguntzan baja ematea.

Telealarma zerbitzua.-

- 385 zbk.dun esped.: 2008ko martxoaren 15ean egoitzan sartu dela eta, zerbitzutik baja ematea.

- 17 zbk.dun esped.: telealarmaren instalaziorako 19,87 € eta bere mantenimendu gastuetarako urtean 21,17 € ematea. Ematen zaiona telealarma zerbitzu kostuaren %25 da.

IV.- UDAKO KIROL KANPAINA .-

Kirol Batzordetik Udako Kirol Kanpaina 2008ko egitasmoa aurkezten da. Kanpaina hau ekainaren 23tik uztailaren 18ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamalau mila berrehun eta bi eurotako (14.202 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita hiru mila bostehun eta hamazazpi (3.517 €) eurotako da.

Tokiko Gobernu Batzarrek, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udako Kirol Kanpaina 2008 hau onartzea erabakitzen du.

V.- SAN PRUDENTZIOTAKO TXOZNAK .-

Festetan irekitzen diren taberna eta txoznen inguruan 8 eskaera egon dira.

Hauetatik txoznak jartzeko eskariak 5 dira: Gazteak, Presoen Lagunak, Bai EHri, Goierri Lanbide Eskolako 2. batxilergoko ikasleak eta AHT Ez; eta lokaletan taberna jartzeko eskariak 3: Lazkao Kirol Elkartea, Ezker Abertzalea eta Lazkao Kirol Elkarteko Pilota Saila.

Tokiko Gobernu Batzarrek, eskariak aztertzeke garaian aurreko urteetako erizpideak jarraitzea ikusten du egoki eta ondorioz, lokaletan jarritako baimendutako tabernen kopurua gehienera ere 2 izatea eta txoznen kopurua, berriz, 4.

Tokiko Gobernu Batzarrek, eskaera hauek aztertu ondoren, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lokalean taberna jartzeko eskarietako bat Gerriko tabernan, hau da, lehendik ere taberna den lokal batean jartzea proposaten denez, hiru eskariak baimentzea.

Txoznak jartzeko lau baimenak ondorengo talde hauei ematea: Gazteak, Presoen Lagunak, Bai EHri eta AHT Ez.

Goierri Lanbide Eskolako 2. batxilergoko ikasleak taldeari baimenik ez ematea ikasle hauek ikasten duteneko ikastetxearen egoitza udalerrian ez dagoelako.

...///...



...///...

Taldeei taberna nahiz txoznak jartzeko ematen zaizkien baimenei jarraian adierazten diren baldintzak ezartzen zaizkie:

- Txoznak jartzeko kokalekua Udaletxe atzea izango da.
- Txozna eta taberna bakoitzak 151 € euro ordaindu beharko du, hau da, iazkoa KPIren aldaketaren igoerarekin.
- Txozna eta taberna hauen jarduera apirilaren 25etik maiatzaren 1era mugatu da soil soilik.
- Ixte ordutegia, geihenez ere goizeko lau terdiak izango da.
- 18 urtez beherakoentzat alkohol salmenta debekatuta dagoela adierazten duen kartelak jarri beharko dira ikus daitezkeen tokietan.
- Txoznak maiatzaren 6rako kenduta egon beharko dira.

Tasa ordainketa maiatzaren 31a baino lehen egin beharko da, Udalak herriko banketxetan horretarako dituen edozein kontu korrontetan.

VI.- SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARAUUA.-

Kultura Batzordetik aurtengo San Prudentzio jaietarako prestatu den egitarauaren berri ematen da. Aurtengo San Prudentzio Jaiak apirilaren 25etik maiatzaren 1era arte eta Lazkaomendin maiatzaren 3 eta 4an garatuko dira, eta aurrekontua EHUN ETA HOGIITA HIRU MILA eurotakoa (123.000€) da.

Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, 2008ko San Prudentzio festa egitarau hau onartu egiten du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



